

## 2026/0211 DEKRETUA

**DEKRETUA:** Hernanin, 2026/02/06

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28.4 artikulua honako hau ezartzen du: *Sektore publikoko erankudeek kontratazio publikoaren jardura programatuko dute eta aurrekontu-ekitaldi batean edo urte anitzeko aldietan garatuko, eta kontratazioari buruzko beren plana aurrez jakinaraziko dute, aurretiazko horretan, zeina 134. artikuluan aurreikusita baitago, gutxienez ere erregulazio harmonizatuko kontratuak agertuko dira.*

Hori horrela, legearen xedeetako bat da administrazio publikoek beraien kontratazioen programazio aurreikuspenak merkatuari jakinaraztea, gardentasuna eta lehia indartzeko aburuz.

Aipatutako artikulua horretan xedatutakoa betetzeko, Kontratazio sailetik errekerimendua egin zaie udaleko sailei 2026. urtean lizitatzea aurreikusten duten kontratuaren gaineko informazioa eman dezaten.

Hernaniko Udaleko sailetatik emandako informazioaren arabera Hernaniko Udalaran 2026rako kontratazio plana egin da. Plan horrek barne hartzen ditu erregulazio harmonizatuari lotuta aurreikusitako kontratuak eta erregulazio horri lotuta ez daudenak ere. Horietako bakoitzari dagokionez, honako datu hauek azalduko dira: bideratu duen saila, kontratuaren helburua edo izena, kontratu mota, aurreikusitako balio zenbatetsia, iraupena eta prozedura mota. Halaber, planean ez dira udal arloek legezko baldintza betez izapidetu ditzaketen kontratu txikiak, kontratu horiek ez baitira lizitatu behar SPKL-ren 118. artikuluen arabera.

Plan horretan era guztietako kontratuen datu estimatiboak eta ez-lotesleak jasotzen dira. Era berean, kontuan hartu behar da plan horrek urte baterako aurreikuspenak dituela, eta besteak beste ezaugarri teknikoak, beharrak eta zenbateko ekonomikoak baloratu ondoren, izan daiteke gaur egun duten definizioa lizitazio unean bestelakoa izatea. Gainera, plana dokumentu dinamiko bat da eta gaur egun, aurreikusitako kontratu guztiak dituen arren, posible da etorkizunean beste espediente batzuk sartzea, egokitasun-arrazoiengatik, ezohikoak edo gerora sortutakoak, eta ondorioz, hasierako dokumentu honetan sartuta ez egotea.

TAOLen 21.1.s) artikuluen arabera, Alkatetzaren eskumena da plan hau onartzea.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** Onartzea Hernaniko Udalaren 2026erako Kontratazio Plana, eranskinen jasotzen dena.

**Bigarrena.-** 2026 urterako Hernaniko Udaleko Kontratazio Plana eta bere eranskina Hernaniko Udalaren Kontratatzailearen Profilean argitaratzea.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa bitarteko udal idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut.-

**ERANSKINA: 2026 URTEKO KONTRATAZIO-PLANA**

SAILA	XEDEA	MOTA	AURREKONTUAREN ESTIMAZIOA (BEZ gabe)	IRAUPENA	HARMONIZATUA	AURREIKUSPENA
<b>EUSKARA ETA HEZKUNTZA</b>						
Euskara eta Hezkuntza	Herriko kirol klubetan euskara planak garatzea	Zerbitzua	50.000,00 € guztira	4 urte (2026-2030)	EZ	2026an lizitatu
<b>HERRI-LANAK</b>						
Herri-lanak	Uraren digitalizazioaren PERTEa (DIGURBE)	Obra/ Hornidura	410.500,00 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Herri-lanak	Portu auzoko saneamendua	Obra	309.617,77 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Herri-lanak	Epeleko saneamendua	Obra	438.373,60 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Herri-lanak	Ur kontagailuen berritzea	Hornidura/ Zerbitzua	193.884,00 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Herri-lanak	Udaltzaingoa eta Abegi etxea	Obra	1.200.000,00 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu

Herri-lanak	Larregain gaineko Ereñotzu-Larregain bidearen drainatzea hobetzeko obra	Obra	92.027,59 € guztira	2026	EZ	2026ko bigarren hiruhilekoan lizitatu
Herri-lanak	Eraikinen garbiketa	Zerbitzua	1.550.000 – 1.600.000 € urtean	5 urte (2026 - 2031)	BAI	2026an lizitatu
Herri-lanak	Bi ibilgailu berrien erosketa	Hornidura	57.850,00 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
<b>HIRIGINTZA ETA INGURUMENA</b>						
Hirigintza	Portu-Karabel igogailua	Obra	1.500.000 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Hirigintza	Ave Maria arte sorgunea	Obra	2.200.000 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Hirigintza	Udal igerilekua birgaitzea	Obra	150.000 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Hirigintza	FL. 08 saneamendua (proiektua)	Zerbitzua	192.000 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Hirigintza	Hilerrian bateriak jartzea	Obra	150.000 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Hirigintza	Atletismo pistak estaltzea	Obra	400.000 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Hirigintza	Atletismo pistan fotoboltaikak eta bateria jartzea	Obra	200.000 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu

Hirigintza	Karabeleko eremuko eraikinak (proiektua)	Zerbitzua	30.000 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Hirigintza	Ereñotzuko kanala	Obra	412.600 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Hirigintza	Latxeko fabrikako nabe nagusia (proiektua)	Zerbitzua	33.000 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Hirigintza	Skill park (lehen pump track)	Obra	120.000 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Hirigintza	GA.06 urbanizazio obra (1. fasea)	Obra	2.012.000 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
Ingurumena	Udalerriko bero mapa egitea	Zerbitzua	40.000 € guztira	2026	EZ	Lehen/bigarren hiruilekoetan
Ingurumena	Autokonponketa tailerra dinamizatzeko eta komunitate aktibazioa	Zerbitzua	41.900 € guztira	2026	EZ	Lehen hiruilekoan
Ingurumena	Landare inbaditzaileak ezabatzekeo programaren jarraipena	Zerbitzua	30.000 € guztira	2026	EZ	2026ko ekainetik aurrera

<b>IDAZKARITZA</b>						
Idazkaritza	Hernaniko Udalaren aseguru kontratuen kudeaketa eta exekuziorako bitartekaritza eta laguntza ematea	Zerbitzua	17.537 € urtean	5 urte	EZ	Urtarrila amaieran lizitazioa argitaratu
<b>KONTUHARTZAILETZA</b>						
Kontuhartzaitza	Hernaniko Udala eta menpeko erakundeen kontuen egiaztaketa eta urteko finantza kontroleko lanetarako lankidetzaz zerbitzua kontratatzea	Zerbitzua	90.000 € guztira	4 urte	EZ	2026-12-31 baino lehen esleituta.
<b>KULTURA</b>						
Kultura	Biteriko ikastaroak	Zerbitzua	125.000 € urtean	2+2	EZ	2026-08-31rako formalizatuta.
Kultura	Auzoetako tailerrak	Zerbitzua	60.000 € urtean	2026	EZ	2026
Kultura	Produkzio laguntza zerbitzua	Zerbitzua	65.340 € urtean	2+2	EZ	2026-11-15erako formalizatuta.
Kultura	Sanjoanetako musika taldeak	Zerbitzua	10.000 € guztira	2026	EZ	2026-06-01erako formalizatuta.

Kultura	Aholkularitza kultur ekipamendu berria	Zerbitzua	15.000 € urteko	2026-2027-2028	EZ	2026
Kultura	Aholkularitza Sormen gunea	Zerbitzua	15.000 € urteko	2026-2027	EZ	2026
<b>POLITIKA SOZIALA</b>						
Adinekoak	Goiz Eguzkiko etkezaintza eta tabernaren zerbitzuen kudeaketa	Zerbitzua	8.500 € urtean	2+1+1	EZ	Urrirako kontratua formalizatuta
Berdintasuna	Elkarzaintza taldearen dinamizazioa	Zerbitzua	15.000 – 20.000 € urtean	2+2 urte	EZ	Abenduan kontratua formalizatuta
<b>TOKIKO GARAPENA</b>						
Tokiko Garapena	Iturola elkarlankortasun ekintzailera zerbitzuak eta enpresentzako bidelaguntza zerbitzua kontratatzea	Zerbitzua	22.000 € urtean	1+1	EZ	2026an lizitatu
Tokiko Garapena	Hernani Burujaberaren koordinazio eta dinamizazio lanak kontratatzea	Zerbitzua	60.500 € urtean	1+1	EZ	2026an lizitatu

<b>UDALTZAINGOA</b>						
Udaltzaingoa	Armategiaren obra eta hornidura kontratatzea	Obra/ hornidura	18.000 € guztira	2026	EZ	2026an lizitatu
<b>ZERBITZU SOZIALAK</b>						
Zerbitzu Sozialak	Eguneko arreta zerbitzua	Zerbitzua	40.000 € guztira (% 10 BEZ barne)	2+1+1	EZ	2026an lizitatu
Zerbitzu Sozialak	Jangela soziala	Zerbitzua	35.000 € guztira (% 10 BEZ barne)	2+1+1	EZ	2026an lizitatu
Zerbitzu Sozialak	Elikagai bankuko lokala	Zerbitzua	20.000 € guztira (% 10 BEZ barne)	4 urte	EZ	2026an lizitatu
Zerbitzu Sozialak	Eskuhartze psikosoziala	Zerbitzua	220.000 € guztira (% 10 BEZ barne)	1+1+1+1	EZ	2026an lizitatu

